

Plazer txikiak

Esataria 1: Gaur plazer txikiez hitz egitera etorri gara. Eguneroko zurrunbiloa ahaztuko dugu, zer demontre!

Esataria 2: Oso ondo. Ea zer esan duten entzuleek. Entzun, entzun!

Entzulea 1: Niri asko gustatzen zait lepoan edo bizkarrean azkura dudanean norbaitek hatz egitea, riki-raka, riki-raka, riki-raka, riki-raka...

Entzulea 2: Kaixo, egun on. Gauetan, ohera joaten naizenean, txokolate-ontza pare bat jatea da nire plazera. Ummm, zer goxoa!!!

Esataria 2: A zer plazera!

Esataria 1: Bai, hala da!

Esataria 2: Jateko kontu horiek askotan agertzen dira plazer txikiez galdetzen dugunean, ezta?

Esataria 1: Bai, jatea, bai... egia da plazer bat dela orokorrean, ezta? Baina askotan esaten dute txokolatea, txokolatea! Niretzat benetako plazera da igande goizetan, lagunekin ateratzen naizenean, ... badakizu, aperitifaren garai horretan, ba, kroketa on bat hartzea.

Esataria 2: Bai, kroketa!

Esataria 1: Eta izugarri gustatzen zait oso nekatuta nagoenean maindire garbiekin ohean sartzea.

Esataria 2: Bai.

Esataria 1: Garbi-usain hori, dena ondo-ondo, ohea ondo egina. Zer gauza ederra den!

Esataria 2: Bai, noski! Beste batek: "Plazer txiki bat da, niretzat, udazkenean, zuhaitzetako kolorea aldatzen ari denean, mendian paseatzea. Egunetik egunera arbolen koloreak nola aldatzen diren ikustea".

Esataria 1: A, bai!

Esataria 2: Beste bat: "Plazer txikia da, egun osoa kanpoan pasatu ondoren, etxera iristen naizenean, zapatak erantztea".

Esataria 1: Oi, zer ona! Niri asko gustatzen zait alarmerik gabe lo egitea.

Hau da, ba, lanera joan behar ez dudanean, alarmak ez jotzea".

Esataria 2: Azkenekoa.

Esataria 1: Alabari eta bioi, autoan goazenean, ozenki abesten joatea gustatzen zaigu.

Esataria 2: Bai?

Esataria 1: Hori plazer handia da guretzat, bai!

Esataria 2: Zer plazer pila daukagun! Gehiago bururatzen zaizkizue, entzuleok?